

KONTROL MOZIOA **Gizarte Ekintzako txoke planaz**

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko maiatzaren 19an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean abiatu zuten Gizarte Ekintzako profesionalek zerbitzuaren kalitatea eta saileko lan baldintzak hobetzea asmo zuen mobilizazio dinamika. Urgentziak eta epe ertain/luzerako neurriak konbinatzea eskatzen dute, jasangaitza den eta langileen bizkar erortzen den egoera destentsionatzea ahalbidetuz, baina Gizarte Ekintzak behar duen sakoneko azterketa eta plantila zabalpena helburu. Egoera hau izanik eta astez-aste mantendu den lanuzte eta greba dinamikaren ostean, maiatzean aurkeztu du Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuak, haren aburuz, egoera destentsionatzea bilatzen duen *txoke plana*.

Azken hilabeteen batzordeetan eta udalbatzan EH Bilduk urgentziaz eta programako kontratazioa baliatuz profesional gehiago kontratatzea eskatu genuenean, hori egitea ezinezkoa zela erantzun du behin eta berriz zinegotzi delegatuak. Haren aburuz, aurrekontuko 1. kapitulua ukitu ezin zelako. Orain, Gizarte Ekintzako txoke planaren baitan, programazko kontratazio bidez 2 administrari kontratatuko direla aurkeztu du Udal Gobernuak. Kopurua ez-nahikoa izateaz gain, kezkutzen gaituena txoke planaren norabidea bera da. Izan ere, finean, administrarien figura toki batean zentralizatzeraz joko da, deiak bertatik jasoz aurrerantzean.

Txoke planak prozesuak arindu eta arreta hobetuko omen du zinegotzi delegatuaren hitzetan, “dei galduak jeistea, prestazio ekonomikoak arintzea, eta aurrez-aurreko arreta hobetzea” bilatuz. Planak kezkutzen gaitu, besteak beste, txoke plan honen osaketan ez dutelako langileen ordezkariak parte hartu eta hori oinarriko akatsa delako. Proposatutako neurriek profesionalen onarpenik ez badu, neurriak efektiboak izateko aukerak oso txikiak izango dira. Gainera, bulegoetan bertan ematen diren dinamiketan administrariak betetzen duten papera

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -

20003 Donostia

IFK-CIF P2007400A / TEE/REF 01260697

ezinbestekoa dela badakigu, teknikariei lana errazten eta lehentasunak markatzen baitituzte eta, kasu askotan, administrariak berak kudeatzen baititu zerbitzura doazen herritarren beharrak; horregatik, figura hauen presentzia bulegoetan txikitzeak ez du arreta hobetuko, kontrakoa baizik. Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren arreta-ereduan ezartzen diren hiritarrarekiko gertutasuna, deszentralizazioa eta atentzioaren eskuragarritasun zein hurbiltasuna kaltetuak izan daitezke plan honekin.

Paraleloki, Udal Gobernua ari da epe ertain/luzeko neurriak negoziatzen. Profesionalei aurkeztutako proposamena greba batzordeak egindako proposamenetik urrun gelditzen dela dirudi, kopuruetan, eta baita saileko profil batzuei begira egiten den inbertsio hutsalean. Hori horrela, uste dugu Udal Gobernuak langileen aldetik iristen diren proposamenei irekita mantendu behar duela, eta hiriak datozen urteetan izango dituen erronken neurriko Gizarte Ekintza baterako prestatu, horrek eskatzen duen leheneste ariketa eginez datozen urteetako aurrekontuetan, besteak beste, baina baita ere, sailak hirian betetzen duen funtzioaren eta egiten duen lanaren inguruko azterketa sakona eginez. Edozein kasutan, epe motzeko eta luzeko neurrietan profesionalen eskutik egin behar dugu bidea, egoera gertutik ezagutzen dutenak haiek baitira, eta era berean, haien lan eskergari esker eutsi diolako hondoratu gabe Gizarte Ekintzak orain arte.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txoke planean bermatu dezala bulegoetako arreta kaltetuko ez dela, arreta ereduan markatu irizpideak errespetatuz.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txoke planaren baitan eta programazko kontratazioa baliatuz egin dezala esfortzu handiagoa lan-karga gutxitzeko.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari epe ertain/luzera begirako proposamenean jaso ditzala profesionalak egindako eskariak, eta egin dezala bide hori langileen eskutik.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23a

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06

